

Donostia, 2024ko ekainaren 10a.

## **Heidelberg Materialek bere Euskadiko jardueraren deskarbonizazioa bultzatzen du, eta Añorgako lantegian klinkerra ekoizteari utziko dio**

“Rezola” izenez ezaguna den enpresak iragarri duenez, **klinkerraren ekoizpena** utziko du **Añorgan**, zementuaren osagai horren ekoizpena Arrigorriagan kontzentratzeko, lerro hori baita Euskadin eraginkorrena eta CO<sub>2</sub> emisio txikiak dituena, deskarbonizazio-betebeharrak betetzeko.

Zementuaren fabrikazioak eta salmentak gaur egun bezala jarraituko du bi lantegietan.

**Ingurumen eta industria arrazionalizazio** ekimenak agerian uzten du Heidelberg Materialek konpromiso sendoa duela Euskadin dituen bi lantegiekin, izan ere horietan **deskarbonizatorako 32 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du 2024-2026 aldian**.

Neurri horrek berekin ekarriko du ekainaren 18an **Añorgan prozedura kolektibo (EEE) bat** hastea. Prozedura horretan, enpresak barne-birkolokaziorako plan zabala eskainiko du, baita ekimenaren eragin soziala ahalik eta gehien murrizteko beste zenbait neurri ere.

**Heidelberg Materialek, Euskadin duen industria-jarduera deskarbonizatzearen** aldeko apustua egin du, ingurumen eta industria arrazionalizatorako hainbat neurri abian jarrita, besteak beste, Añorgako lantegian klinker-ekoizpena geldiaraztea eta zementua ekoizteko lehen fase hori Arrigorriagan kontzentratzea, lerro hori eraginkorragoa delako eta karbono dioxido (CO<sub>2</sub>) gutxiago isurtzen duelako. Klinkerraren ekoizpena da zementu-fabrika baten CO<sub>2</sub> (karbono) isurketen % 100 sortzen den fasea.

**Zementuaren fabrikazioak eta salmentak bi lantegietan jarraituko du**, baina klinkerra ekoizteko iturri bakar batean oinarrituta.

Horrela, **CO<sub>2</sub> isuriak berehala % 50 murriztuko dira 2023. urtearekin alderatuta, eta epe luzera bi fabriken jasangarritasun klimatikoa eta industrialia bermatuko da**.

Ohiko gama ekoizteaz gain, karbono gutxiko zementuen (CO<sub>2</sub>) ekoizpena eta berrikuntza sustatuko dira Añorgako lantegian (Gipuzkoa), produktu berrietan eta eraikuntzako soluzio jasangarrietan lkerketarako eta Garapenerako gaitasun berrien bidez.

**Euskadin CO<sub>2</sub> murrizteko helburuen betetze-maila**

Añorgako lantegiko Enpresa Batzordeari gaur iragarri zaion ekimen horri esker, zementua ekoizteko gaitasun berari eutsiz CO<sub>2</sub> isuriak berehala ia % 50 murrizteaz gain, Europar Batasunak 2005eko isuriek in alderatuta 2030erako CO<sub>2</sub> isuriak % 62 murrizteko ezarritako helburua bete ahal izango da, eta hori izango da helburu hori lortzeko modu bakarra. Halaber, erabaki horri esker, “Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea” izenekoaren betebeharrak bete ahal izango dira. Lege hori Eusko Legebiltzarraren % 82aren babesarekin onartu zen joan den otsailean.

Bestalde, neurri honen helburua Europar Batasunak CO<sub>2</sub> eskubideak esleitzearen eta konpainiaren merkatu giltzarriei erantzuteko behar-beharrezkoak diren ekoizpen beharren arteko balantzean ahalik eta emaitzarik onena lortzea da: etxeko merkatua (batez ere Euskadi) eta Frantziako merkatua. Horiek, oro har, ez dute klinkerraren ekoizpen bolumen jakin bat baino gehiago behar. Klinker hori, dena den, **ingurumenaren aldetik eraginkorra den lerroan** ekoiztu daiteke.

**Ingurumen-arloko onurez** gain, funtsezkoa da Europar Batasunak ematen dituen CO<sub>2</sub> eskubideak eraginkorrago kudeatzea, kostu onartezinetan ez erortzeko, kontuan hartuta 2030ean zementu-sektoreak eta, beraz, **Heidelberg Materialsek**, orain arte zituzten CO<sub>2</sub> eskubideen erdia baino ez dutela izango.

**Prozedura kolektiboa (EEE) Añorgan**

Añorgako labea geldiarazteko neurriak, ekainaren 18tik aurrera prozedura kolektibo (EEE) bati ekitea ekarriko du. Prozedura horretan, **Heidelberg Materialsek** barne-birkolokaziorako plan zabala proposatuko du, baita beste zenbait ekimen osagarri ere, lantegi horren eraldaketa industrialaren eragin soziala ahalik eta gehien murrizteko, epe luzerako eredu jasangarrirako bidean.

Horrela, enpresa labearen beharrezko geldialdiak eragindako plantillarekin akordio bat lortzen saiatuko da.

**32 milioi euroko inbertsio aurreikuspenak 2024-2026 aldian**

Ingurumen eta industria arrazionalizaziorako neurri horrek agerian uzten du **Heidelberg Materialsek** Euskadirekin duen epe luzerako konpromiso sendoa. Erabaki horrekin, enpresak meatze-baliabideetan duen ahalmena optimizatuko du, etorkizuneko 80 urteko jarduera ziurtatuz, eta 2024-2026 aldian deskarbonizaziorako 32 milioi euroko inbertsioei ekiteko aukera emango du.

Inbertsio horien erdia Añorgara (Gipuzkoa) bideratuko da, zementu jasangarrietan espezializatutako lantegi bihurtzeko eta karbono-aztarna txikiko eraikuntza-soluzioetan bikaintasun- eta berrikuntza-zentro bihurtzeko.

Bestalde, ekimen horri esker, **Heidelberg Materialsek** CO2 atzitzeko proiektu garrantzitsu batean lan egiten jarraituko du. Proiektu horrek klinkerra lerro bakar batean ekoizteko fasea bateratzen denetik soilik kontuan har daitezkeen inbertsio finantzario handiak eskatuko ditu.

## **Heidelberg Materials konpainiaren Espainiako datuak**

*Heidelberg Materials eraikuntzarako materialen eta soluzioen munduko fabrikatzaile integratu garrantzitsuenetako bat da, eta posizio liderrak ditu zementuaren, agregakinen eta hormigoiaeren merkatuan. Heidelberg Materials liderra da karbonoaren neutraltasunerako bidean, eta helburua du hormigoi guztia, gure azken produktua, neutroa izatea karbonoan 2050erako.*

*Espanian, enpresaren presentzia 2 zementu fabrikak, 5 harrobik eta 4 hormigoi plantak osatzen dute, eta horiei esker integrazio bertikal ezin hobea du gure merkatu-eremuan. 170 urteko tokiko esperientziak gure bezeroei hiri eta azpiegitura seguruak, jasangarriak eta abangoardistak eraikitzeak aukera ematen duten kalitatezko eraikuntza-soluzioak eskaintzean oinarritutako lidergoa bermatzen du. Gaur egun, gure enpresak bere ekintza guztien erdigunean jartzen ditu ingurumenarekiko, deskarbonizazioarekiko eta ekonomia zirkularrarekiko erantzukizuna.*

## **Heidelberg Materials**

Prentsa Kabinetea:

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono-zenbakia: 94 435 63 30

Helbide elektronikoa: [j.aguado@grupombn.com](mailto:j.aguado@grupombn.com)